BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2125

AGINDUA, 2012ko martxoaren 26koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Legazpiko (Gipuzkoa) CEIP «Licenciado Domingo Agirre» HLHIri izen espezifikoa aldatzea onartzen duena.

Legazpiko (Gipuzkoa) CEIP «Licenciado Domingo Agirre» Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxearen izen espezifikoa aldatzeko aurkeztu den proposamena aztertu da.

Espedienteari Hezkuntzako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak egin dizkio izapideak, eta indarrean dauden arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio.

Gai horretan aplikatu beharreko legeria ikusi ondoren, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Onartu egiten da CEIP «Licenciado Domingo Agirre» HLHI ikastetxeari izen espezifikoa aldatzea: aurrerantzean CEIP «Domingo Agirre» HLHI deituko da. Ikastegi hori Legazpiko udalerrian (Gipuzkoa) dago, Laubide kaleko 20 bis-en, eta 20002581 kode-zenbakia du.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 26a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.